



AMHER

Botoa emateko eskaera, gaur arte

Europar Batasunekoak diren etorkinek gaur dute eskaera egiteko azken eguna, 2015eko Udal eta Foru Hauteskundeetan botoa eman ahal izateko.

Udaletxean aurkeztu behar dute sufragio eskubidea erabiltzeko deklarazio formalak. Europar Erkidegotik kanpokoek, berriz, urtarrilak 15 arte daukate aukera, dagozkien tramiteak egiteko: Espainiar Estatuan bizitzeko baimena eta hauteskunde erroldan izena ematea. ||

BERTSOLATA 'FERNANDO AMEZKETARRA, 250 URTE'

«Modu entretenigarri bat da, duela bi mendeko bertsolaritza, tematika... ezagutzeko»

'Fernando Amezketarra, 250 urte' emanaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan Biterin, Eñaut Agirrek, Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak. Duela bi mendeko bertsoak bildu dituzte, saioa osatzeko.

FERNANDO Amezketarra jaiola 250 urte bete dira aurten, eta hori aprobetxatuz, emanaldi berezia osatu dute Eñaut Agirrek, Imanol Kamiok eta Aitor Atxegak: «urteurrena aprobetxatuz, bazen garaia omenaldi bat egiteko, ezagutzen den aurreneko bertsolari belaunaldiari». Biterin eskainiko dute gaur, 19:00etan. Sarrerak, 5 euroan jarriko dituzte salgai.

Garai hartako 60 bertso inguru bildu, eta ordu eta erdiko saioa osatu dute: «ez da emanaldi soila, ikerketa lanetik ere badauka. Zailena izan da garai hartako bertsoak biltzea», azaldu du Agirrek.

Duela bi mendeko bertsoak, garaiko doinuetan

Orain dela bi mendeko bertsoak ekarriko dituzte Hernanira,



Aitor Atxegak (gitarra), Eñaut Agirrek (ahotsa) eta Imanol Kamiok (pianoa) eskainiko dute emanaldia, gaur.

Fernando Amezketarrarenak batzuk eta garaiko beste zenbait bertsolarienak besteak: Txabolategi eta Agustín Iturriaga, esaterako.

Gainera, ordukoak izan daitezkeen doinuetan kantatuko ditu Agirrek, Kamioren pianoaz eta Atxegaren gitarraz

lagunduta: «aukera izango da, duela bi mendeko bertsolaritza, tematika, kezka... ezagutzeko, modu entretenigarrian».

«Fernando nor zen jakiteko, bere bertsoak dira iturri fidagarriena»

Bertsolari gisa, Fernando

Amezketarra nor zen ezagutzeko aukera ere bada, gaurko emanaldia: «berari buruz asko ikertu da, baina bere bertsoak dira iturri fidagarriena. Eta benetan Fernando nor zen jakiteko, esaten zuena ikertu behar da», argitu du Eñaut Agirrek. ||

HONDAKINAK

Aldaketak bihar, hondakin bilketan

Bihar, Urte Zahar egunez, aldatu izango dira hondakin bilketan. Ordubete aurreratuko da bilketa. Beraz, gaueko 22:00ak baino lehen atera beharko da organikoak. ||

KIROLDEGIA

Kiroldegia itxita, bihar eta etzi

Kiroldegia itxita egongo da bihar eta etzi, Urte Zahar eta Urte Berri egunetan. Errege Egunean, berriz, jai egunetako ordutegia izango du: goizez egongo da zabalik. ||

ZUMITZA TTT

Lizentziak egiteko eguna, gaur

Lizentziak berritzeko eta egiteko aukera izango da gaur Zumitza tabernan, iluntzeko 19:00etatik 20:00etara. Ordainketa egiteko kontu korronte zenbakia, berriz: 2095 5041 11 1073726274. ||

TXOTX DENBORALDIA

Irekierako bazkarirako txartelak, salgai

Urtarrilak 11n irekiko da txotx denboraldia Hernanin, eta Ixas-Buru sagardotegian egingo da irekiera bazkaria. Txartelak 20 eurotan erosi daitezke, eta Biterin egongo dira salgai: gaur 08:00etatik 15:00etara; eta urtarrilaren 7tik 9ra, ordutegi berean. ||

KAXKO ELKARTEA

«Kaxkoko bizilagunak kezkatuta daude, Urte Berrian sartzean botatzen diren koheteekin»

Kaxko Elkarteak dei egin die koheteak botatzeko asmoa dutenei, bitan pentsatzeko, etxebizitzaren eta bizilagunen segurtasuna bermatu nahian.

URTE Berrian sartzearekin batera, koheteak bota ohi dituzte zenbait herritarrek, eta horien inguruan kezkatuta azaldu da Kaxko Elkarteak: «bizilagunak kezkatuta daude, modan jarri den koheteak botatzeko ohitura arriskutsuarekin, Urte Berrian sartzean».

Etxe zaharretan, suteak gertatzea oso erraza dela

gogoratu dute, 2013an Bermeon eta iaz Trintxerpen gertatu zen bezala. Horregatik, Hernaniko Udalarari eskatu diote neurriak hartu eta kontzientziario kanpaina bat egiteko.

«Pentsatu bi aldiz, koheteak bota baino lehen»

Praktika arriskutsua dela eta, kontuz ibiltzeko dei egin diete,

koheteak botatzeko asmoa dutenei: «pentsatu bi aldiz, etxeak dauden gunetan koheteak bota baino lehen, bizilagunen eta etxebizitzaren segurtasuna bermatzeko, eta legedia betetzeko».

Izan ere, koheteak botatzean akatsen bat eginez gero, azaldu dute jende askok jasan dezakela kaltea: «botatzen dituzten pertsonak, gehienek ez baitute

beharrezko prestakuntza; beste pertsona batzuk, lesioren bat izan dezaketenak; eta etxebizitza zaharrak, egurrezkoak izan ohi direnak, eta beraz, sute bat errazago izan dezaketenak».

Bide batez, Kaxko Elkarteak jai zoriotsuak opa dizkie herritarrei, Kaxkoa garbiago eta istilurik gabe egongo delakoan, Urte Berriarekin. ||

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 447 208 702

Allianz ASEGURUAK

bihurtza -
betriplak -
labilgailuak -
etanak -
komertzioak -
engresak -
aldura zibila -
finantz aseguruak -
inbertelak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

AITAN - ETXE
TABERNA

Larramendi, 15
943 55 00 46

ASTEBURUETAN
A F A R I A K

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA
GAUR Giro eguzkitsua izango da, baina hotza izango da protagonista. Dena den, temperaturak epeltzera egingo du pixka bat, eguzkiari esker: Min.0° / Max.7°
BIHAR Berdin jarraituko du eguraldiak, eguzkitsua bezain hotz. Garbi garbi egongo da zerua, baina oso gutxi igoko da tenperatura: Min.-1° / Max.8° (euskalmet)

■ FUTBOLA JOXEAN ARABIOTORREREN II. OMENEZKOA

Futbol goiz ederra, Zubipen

Gaur jokatuko da, Zubipen, Joxean Arabiotorreren II. Omenezko torneo. 10:00etan hasiko dira partiduak, eta lau talde ariko dira lehian.

GOIZ ederra pasatzeko aukera dute futbolzaleek, gaur, Zubipen. Lau neska talde ariko dira lehian, Joxean Arabiotorreren II. Omenezko torneo irabazteko asmoz.

Goizeko 10:00etan hasiko dira partiduak, eta 45 minutuko zati bakar bat jokatuko dute. Zelai osoan arituko dira, 11 jokalariko taldeetan. Hernanikoa izango da talde bat, neska jubenilena.

Hernaniarrek aurkari izango dituzte Oartzun, Añorga eta Tolosa, gaur.

«Taldea politik ekarriko dituzte txapelketara»

Beste hiru talde gipuzkoar ariko dira torneoan: Añorgak eta

Tolosak jokatuko dute aurreneko partidua, 10:00etan. Hernanik, berriz, Oartzun izango du aurkari, 11:00etan. «Taldea politik ekarriko dituzte, hirurek», aurreratu du Andoni Lorane, Hernaniko senior taldearen entrenatzaileak.

Galtzaileek, 12:00etan izango dute zita berriro, 3garren eta 4garren postua jokoan. Eta final handia 13:00etan izango da. ■

■ EH BILDU

Puntuz Puntu dinamika martxan, lehentasunak markatzeko

Webgunea ere jarri du EH Bilduk herritarren eskura, ekarpenak jasotzeko. Hurrengo lau urteetan zein norabide hartu erabakitzea da asmoa.

HURRENGO lau urteetan zein norabide hartu erabakitzeke lanetan dabil EH Bildu, eta herritarrekin elkarlanean finkatu nahi du hori. Horregatik, Puntuz Puntu dinamika jarri dute martxan, 2015-2019 legealdirako lehentasunak markatzeko.

Legegintzaldi berrian, zein erronka eta politika nagusi garatu beharko liratekeen biltzea da asmoa. Horrela, alderdiaren programa osatu nahi dute, «ahalik eta jende gehienarekin hitz egin, kontrastatu eta adostuta».

Hauteskundeen zerrendarako, hautagaiak proposatu ditzakete herritarrek.

Herritarren ekarpenak jasotzeko, hainbat bide

Herritarren ekarpenekin ari dira prozesua osatzen, eta hainbat bide jarri dituzte horretarako. Batetik, batzar, mintegi eta lanketak egingo dira, datozen hilabeteotan.

Eta bestetik, aukera ezberdinak ireki dituzte, proposamenak jasotzeko: webgunean, www.hernani.ehbildu.es; hernani@ehbildu.net helbide elektronikora idatziz; eta herriko zenbait puntutan (Rioja eta Garin tabernetan, esaterako) dauden inkesta eta galdetegiak betez.

Hautagaien zerrendarako, proposamenak

Bide horiek erabiliz, herritarrek aukera dute, halaber, hauteskundeen zerrendarako hautagaiak proposatzeko. ■



■ DORRONSORO OKINDEGIA

Ogi bila joan, eta saski eder bana etxera!

Urtero bezala, beste bi saski zozketatu ditu Dorronsoro okindegiak, bere bezeroak saritzeko. Lizeaga kaleko okindegian, Jexux Aierzak irabazi du saskia, eta Laurak eman zion; Akarregiko okindegian, berriz, Joxe Antonio Vergarari tokatu zaio, eta Joxek eman zion. Ogi bila joan, eta saski eder banarekin bueltatu ziren etxera. ■

■ PORTU AUZOA

Pelikula gaur eta mendi buelta bihar

Gabonen bueltan, zenbait ekitaldi antolatu dituzte Portu auzoan, eta beste bi ekintza izango dira gaur eta bihar. Umeentzako pelikula jarriko dute gaur, 17:30etan; bihar, berriz, Santa Barbarara mendi buelta egingo dute, 10:30etan abiatuta, urte bukaera ospatzeko. Ostiralean izango da azkena, erroskilla tailerra eta merendola, arratsaldeko 16:30etan. ■

■ GURE ESKU DAGO

Ametsen kriseiluak salgai, eta argazki lehiaketa martxan

Ametsen Kriseiluak salgai dauzkate 2 euroan, Hernaniko Gure Esku Dagoren lokalean (Andre Kale, 41). Desioa eskatu, eta zerura botako dituzte elkarrekin, bihar 18:30etan, Zinkoeneatik eta Ereñotzutik. Argazki lehiaketa ere antolatu dute, honekin lotuta. Argazki eta mezu politena bidaltzen dituenak, bi lagunentzako otordua irabaziko du Fagollagan. Argazkiak bidaltzeko: hernanigureeskudago@gmail.com. ■



Poesiako Satarka Saria irabazi zuen Iñigo Legorburuk, Hondarribian. Prosakoa, Bordari Saria, Olatz Mitxelena oartzuarrak jaso zuen.

■ POESIA

Iñigo Legorburuk bi poesia sari, segidan

Bi poesia sari irabazi ditu Iñigo Legorburu hernaniarrek, oso denbora gutxian. Hondarribian, literaturako Satarka Saria irabazi zuen, *Latina dakien ezjakina naiz* lanarekin. Aurreneko aldia zuen poesia lehiaketa batean, eta sorpresaz hartu zuen saria. Orain egun batzuk, berriz, EHUKo II. Estropada Akademikoen komunikazio lehiaketa irabazi du, *Sonetozko uberetan zehar* poema sortarekin. ■

■ Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† M^a ANTONIA NAVARRETE CANTARERO

(Mariano Lopezen alarguna)
 Herenegun hil zen, 86 urte zituela,
 Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
 - Goian Bego -

Seme-alabak: Conchi eta Luis Hernández, Rosa eta Mitxel López, Mariano eta Pilar Munduate; bilobak: Daniel, Ana, María eta Javi, Mikel eta Nahikari, Lucas eta Enara; birloba: Maddi; anai-arrebak, ezkon ani-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko abenduaren 30ean

Helbidea: Kardaberaz kalea
 OHARRAK: Gorputza VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN (Orkologa kalean) egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

PISUKIDE EUSKALDUNAREN BILA NABIL, Portu auzoan bizitzeko urtariletik aurrera.

Deitu: 615 735 815.

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... **Seriotasuna**. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)